

2006KO URTARRILAREN 11KO **TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta seiko urtarrilaren hamaikan, iluntzeko zazpitan, Lazkaoko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Inazio Estensoro Eskisabel, Xanet Barreras Jauregi eta Arantxa Zumelaga Agirre.

Igor Sarriegi Zumarraga zinegotzia ez da bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurutuzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2005eko abenduaren 14an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2005eko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 11 zbk.dun fakturen zerrenda, BERREHUN ETA LAUROGEITA HEMERETZI MILA HOGEITA HEMERETZI euro eta HIRUROGEITA LAU zentimo (299.039,64 €)takoa onartu eta ordaintzea erabakitzen da.

III.- UDALETXEKO BIRMOLDAKETA LANEN LEHEN FASEKO LEHEN ZERTIFIKAZIOA.-

Jarraian IKENA 2001 S.L. enpresa burutzen ari den Udaletxeko birmoldaketa lanen lehen fasearen lehen zertifikazioa aurkezten da bere onarpenerako. Zertifikazio honen zenbatekoa HIRUROGEITA HIRU MILA BEDERATZIREHUN ETA LAUROGEITA HAMASEI euro eta HOGEITA ZORTZI zentimo (63.996,28 €)takoa da eta udal arkitekto teknikoaren oneritzia darama.

Honen aurrean eta zertifikazio hau aztertu ondoren, Tokiko Gobernu Batzordeak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin zertifikazio hau onartzea erabakitzen du.

IV.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-

Gizarte langilea gaixorik dagoela ezin izan da eguneko gai zerrendako puntu honi zegokion dokumentazioa osatu eta beraz gaia mahai gainean geratzen da.

V.- KULTURAKO DIRULAGUNTZA.-

Kultura Batzordetik, Lazkaoko Txikiri buruz egindako musika CDa dela eta, Xabier Amurizari ZAZPI MILA ETA EHUN (7.100,-) eurotako dirulaguntza ematea proposatzen da. Xabier Amurizak, egindako laneko CD horren 100 ale oparitu dizkio Lazkaoko Udalari.

Tokiko Gobernu Batzordeak, gaia aztertu ondoren, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, proposatutako dirulaguntza onartzea erabakitzen du.

VI.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zazpi terdiak direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudarik.